


Eskuin aldera eta ezker aldera (II)

(JARRAIPENA)



ahaleginek, hots, ahalegin derrigor konplikatuek: gaurko zenbait populistari bezalatsu). Eta dena kritikoki neuritu behar da gaur ere. Eta atzo ere berdintu zen guzti hau: "gure artean dabilzan ideiak eta balioak erroetaraino ikusmiratu nahi dituzte", esaten zuen 1957an Mitxelena hazaldi berriaz. Eta hazaldi honek zerabilkien euskarari buruz: "Zertarako nahi eta behar dugu euskara? Gure mundukoa ez den oroigarri xahar kuttun bat eduki genezakeen moduan edukitzea? Zikintzeko beldurrez inor ukizera ausartzen ez den zenbait liburutegitako azal ederreko liburuen bezala gordetzea?" (L. Mitxelena, Idazlan Hautatuak, 304) (nirea azpim). Honean ere iraganaldia berritzen ari gara.

KRITIZISMOA

Kontzientzia honekin, eta berriaren eta zaharren artean erabaki beharrak zekarren dena aztertut beharrekin, kritikak sekulako indarra hartu zuen. "Kritika horrek bi xede ditu: hizkuntza eta ideiak", adierazten zuen Mitxelena 1960ean.

Eta honetan ere zaharren eta berrien oinarriko diferentzia bat ikusten da, gure herriari buruz erabiltzeko ikusmiran bertan: "Jaioterri-maitasuna (...) bi erabakia izan daiteke: hobeto esan, bi eratan ager daiteke. Batzuek ez dute loria eta handitasuna balizik ikusten; beren buruari erretsis, harrotasunean igeri dabilta txerriak lokatzetan bezala. Beste batzuek, berriz, nahiago izaten dituzte bestearekoko begi-estalkiak baino, hots, beren herriaren izaera eta egoera hobetu nahi lituzkete eta behar-beharrezkoa iruditzen zaie horretarako huts eta beltzuneak ahalik argi eta garbien ikustea eta salatzea. Eta jokabide hau lehenbiziko haienartean, esan beharrik ez, izan daitekeen bekaturik larriena ez bada ere, ez dabilko agitz urruti" (L. M., aip. lib. 66/67).

(Gaurko kritikak bide horixe darraio, dudarik gabe. Ikus, adibidez, Haranburu-Altunak euskal literatura nola juzgatzen duen, edo Kintanak Ukraina. Halare, problema ez da jadanik, kritikarik egin ala ez; beste hau baizik: nolakoa egin. Eta hori, geroz eta premiatsuago: 1950 urtetako aldiaren gelditua, edo atzera hartara itzuli, nahi ez badugu behintzat. Kritika desberetak, globalak, geroz eta gutiago balio du, geroz eta eskubide gutiago du. Horregatik, Haranburu-Altunaren kritikak edo Kintanaren Ukraina-k 50 garren goz urteak zegoen forma dutela, iruditzen zait niri; hau da, hasieretako kritika globalaren aldiari zegoen forma. Ez gure desarrolloaren gaurko faseari legokiokeen zehatz eta konkretua).

Betiko moduan, kritikak, orduan ere, aisa galzten zituen neurria eta zuhurtzia. Halako kritika burrukaria bait da, ez arbitroa. Are konprenigarriago, burrukaria gaztea bada. San Jeronimen latinez esateko (klerikoa bait naiz, bekik hainzu latinkada bat!): "facilitate qua cuncta loquuntur et impunitate qua sibi licere omnia putat", hazaldi berri haren ere, mitxoak edo idoloak txikitzeo atxikiarekin behar bada, ez zuen lotsarik, eskuetan erortzen zitzaion dena zakurraren salara bidaltzeko.

Makina bat jende amorratzen zen. Mitxelena ere, nahiz eta gazteen "Mezenas" inportantena bera izan, garbi adierazten zuen: "Ez ditut nik gogoko erabat gaurko berrikeriak eta ezin ditzalet izan. Gehiegizkoak direlako batzuetan, behar bada, eta gehinetan gure garaiokoen maituen genituen (txoro-txoroan ala jakinaren gainean eta merzei onetz, bestek esan beza) ueste eta balioen kontra doazelako batez ere". Beraz, Mitxelena ez du orainago, gehiegierien bigina.

Eta, halare, konprenitzen zituen (orduan): "Ez litzake harrizteko ere oraingo ukamenak aurrageri joanak izatea. Hori gertatu ohi baita, zaldoka eta zabu-zabuka baizik ez dakigunez gero ibiltzen, giza-mugimenduetan. Eta zenbat ere ausarkago aurragertzen garen, hainbat gogoragoa izango da hurrengoan oldarra atzeraka. Gaurko gehiegieriek zaharrogoren bat izutzen badute, bada, har beza gogoan gehiegieria horiek, harri biziaren antzera, ez dutela helingo gehiegierien oihartzuna eta neurria besterik izultzen" (aip. lib. 63/64). Eta: "Nahigabetzen nauek, ordea, ezin eraman dezakedanak berak, poztu egiten nau biziro beste alde batetik. Gizaldiaren arteko borro-

kari legekoa deritzat, bizitzak berekin dakarren legearen semea. Bizirik dagoen herri batean ez ditu gizaldi gazteak aurrerago sinesteak, esanek eta eginak isu-isuan ontzat hartuko eta zenbat ere bizilagun herria, orduan eta bizilagun gizaldiaren arteko elkar-tasuna. Beraz, lehenaren adorazio harrituan ez badaude auspezurik gure gazteak, bizi garelako zelan da hori, besterik baino gehiago" (Id., 65/66. Ik., areago, Leturiaren egunkari ezkutua nobelaren hitzazurrea).

NON DABIL GAURKO EZKERRA?

Beraz, gazteenen erreazio kritiko, gaur-zale, existentzial honekin hasten da Euskal Herriaren ezker alderako mugimendua. Eta beronek probokatzen du zaharagoek eskuin alderago jotzea eta "kontserbatzeko" ahaleginak egiten hastea. Nik ueste, dagoeneko hazaldi berria eta beronen aldekoak gabeinbat nagusitu direla euskal kulturagintzan.

Baina hori dena edo gehiena 50 garren goz urteetan zen. Eta horixe da bat gehien txunditzen duena: hazaldi berria (euskal giroan) jadanik nagusi-samartu izan arren, lehenago urte haietarako berak berregiten ari garelako, ematen du. 70 garren goz urteetan 50 garrenetako azken urteak birgertatzen ari direla. Orduko maila berdin-berdinean eztabaidatzen izugela eta mugitzen garelako oraindik.

Gehiago iritezkerik gabeko sartura izan ote zen ordukoa? Ez al dugu ezer aurragertu? Bere burua berriutu besterik ezin duen abiora hartu ote zen? Egunez egindakoa gauaz desegiten ote da? Ezertan pausatu ezin den belaualdia al dugu hau? Kritikak ezin beldu ez dakiena, eta ez zenbat egin egiten? Belaualdia hau ezin ote da maila pragmatikoko batetara jexi? Izan ere, ideia eta pentsamendu berriak etengabe zabaltzen dira gure artean: baina horiek eztabaidatzeko modua aspaldikoa berbera da.

Mila gogorazio sortzen du fenomeno honek: Agian atzoko gazteak zahartu egin dira... Eta eman ere batzuetan espikazio horixe eman nahi izaten zaie gaurko katramilei: atzoko gazteak gaurko "zaharrak" direla, eta atzoko kritikak ezin dutela gaurko kritika jasana. Hori egin bada, Euskal Herriari izugarri agudo zahartzen da bat: ezer egin baino lehenago, kritikazetik zenbat egitera pasa orduko.

Nahi ezta ere, Rikardo Arregi zenaz gogoratu behar: "Rebisionismoa! Bai ote dago beste biderik? Bakar-bakarrik, hemengo giro maniko honetan nahiko zaila dela aitortu behar. Hala ere ortodoxia guzkiekin nazkatuta nago... Batzuetan zahartzen ari ote naizen pentsatzen diat, eskeptiko samarra ari naiz bihurtzen-eta". 27 urterekin...

Niri beste hau iruditzen zait egunotako zenbat kritikorekin mingosten eta sumintzen direnak, ez direla atzoko gazte gaur zahartuak, edo zuhurtuak eta bai ezintza konkretuan enplegatukoak eta pragmatikoko pentsatzen hasiak. Praktikorentzat eta pragmatikorentzat kritikaren eskubideak ere mugatuak dira. Neure lehenagoko hitz batzu (1970ekoak) aldatu esateko: "Aidean urtu edo kaos bihurtu egiten da kritizismoa, ukazio zehatzgabeketik zehatzera (determinate Negation) eta azkenik baieztazio edo positibitate iraganen ez denean". Erabateko ukazioetik konkretu eta erlatibora pasatzen ez dena, eta bere eskuin zenbat konkretu egiten hasten ez dena, beti bestek egindakoa kritikak aritzen (eta, beraz, kritika mugatzen ez duena), gezurra badirudi ere, lehen fase baten kontserbadore da. Hara berri bat zaharrraren kritika arunt, jeneralarekin, hasten da, noski. Baina kritika hutsetan gelditzen dena, hasieraren hasiera hutsetan gelditzen da. Eta zenbat egiten hasten denak, kritikaren mugak onartu beharko ditu.

Uste dut, belaualdia arrunki ezkeriar batek agintzen duela gaurko euskal kulturagintza. Eta ueste dut, ezker arunt honen barruan, beti ezkerrean baitan ezinbestekoak diren diferentziez gainera, diferentzia asko prozesu baten faseen desajustek sortzen dituela. Beste batetan argituak dit, esaldi honekin zeren entzuten dudan.

Sar gaituzten, ba, "nagusitu" den ezker berri eta gazte hori aztertzea.

JOXE AZURMENDI

GAURKOTASUNAREN GRINA

Hazaldi berriari iruditzen zitzaion, zaharri denora gainetik pasa zitzaioela, atzera gelditua zirela. Zaharrak atzoreen nostalgiko hutsak zirela; gerrak behin betiko likidatu zituen denborari, posibilitateak eta asmoak lapak bezala atxikiak zirela. Baina hura joan lez betiko. Trauma batekin-edo bezala, ezin zitezkeela denbora berriaren uretan sartu eta igeri has. Erreka bazterrean ikaraz gelditu eta handik erre-kari begira zenda, urak nola ziohazten. Eta iruditzen zitzaion, alfer-alferrik zirela "Mendiko negarrak" eta erreak eta bukolikak "arkume otxan, baserri xuri, lore xanbelin eta errekatso marmartiez".

EGANek, adibidez, hitzokien adierazten zituen 1957-an bere asmoak: "Zer nahi dugun? Gaiak, gaurkoak eta betikoak, hemengoak eta nonnahikoak. Mundua itxuraldatzen ari zaigu, onerako edo txarrerako, Euskal Herria ere bai. Urte gutxitan ikusi ditugu, baita ikusiko ere, lehen mende luzeak ikusi ez zituzten bezalako aldaketak. Mundu urduri eta aldakor horretan aurkitu behar dugu bizilekua, biziko bagara". Eta berdintu minza zitezkeen orduan ekin zituen beste gehientsuek. Mundua aldatu zen kontzientziak, eragiten zion olatu berriari.

Gustiaren gainetik "gaurkoa" izan behar zen, ba. Gaurkoa izan behar hori, batez ere, polemikak indaritzen zuen. Gero, astiro-astiro, kasi grima patologikoa bihurtu da askotan.

Egunotan ere, gaur gaurkoa izan behar da, eta gaurkoa izan beharrak euskara mantatzeko eskatzen du, etab. Idazteak burruka izan behar du: ez dago, "gure liburutegietan xokoratzat ditudun" liburu astunak idazterik, "hautsaren sostengu". Baina guzti hau ere tradizional samarra dugu hazaldi honetan. JAKINen egon den zenbait polemikak konparatu beharko litzateke. (Orxeri, adibidez, ez zituen batere grazziarik egiten, kultura goren bat euskeraz adierazteko

GIPUZKOA'KO NEKAZARITZA PIZTU ETA INDARTU

Gure ardurarik audienetako bat, Gipuzkoa'ko nekazaritza piztu eta indartzea da; era ontan, probintziko aberastasuna geitu egiten bai dugu. Gure laguntzakin:

- maisterrak bere baserria erosi dezake.
 - nekazaritarako tresnak erosi.
 - aberentzatz dituan ikulluak berritu.
 - kasta oneko beiak erosi.
- Gizartea atsegiñagoa egin.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

